

**119.13.** Plagioa**PANTAILA HANDIA: NAZISMOAREN ESTRATEGIA**

Zinemaren eta historiaren arteko erlazioa ez da inoiz gai erraza izan. Hasieran, zinema aurretik irudiak zeuden; hala ere, historian, gehienetan, beti eman zaie garrantzi handiagoa testuei irudiei baino. Irudiek eszenak irudikatzen dituzte, ikusle edota irakurleari eremu bisual atsegingarria emateko, askotan kritikotasunik gabe aztertzen diren arren. Dena dela, irudiek eta eszenek ere balio historiko handia izan dezakete, eta tresna oso baliotsuak izan daitezke gizartearengan eragina izateko. Zinema irudien, eszenen eta musikaren arteko konbinazioa izanik, sentimenduak, sentsazioak, kilikak... sortzeko erraztasuna dauka, eta, horrela, ikuslearengan eragiteko.

1930ean, Alemaniak ez zuen egoera ona; izan ere, inflazioak, Versailleseko Ituneko neurri gogorrek... gizartean eragin zuten, eta Hitlerrek testuinguru horretan hartu zuen boterea. Doktrina nazionalsozialista aurrera ateratzeko helburuarekin Hitlerrek propaganda-ministroa ezarri ostean, hark, Joseph Goebbelsek, zinematografiaren industria bideratu zuen. Hala ere, masengan eragin nahi bazen, estrategia-prozesu bat bideratu beharko zuen nazien balio politiko eta sozialetan oinarritutako zuzeneko neurriekin.

Zinema propaganda bideratzeko tresna oso garrantzitsua izan zen erregimen horretan. Nazismoa gizartean sarrarazi behar zen, eta, horretarako, balio eta printzipio nazionalsozialistak irudi eta eszenetan islatu behar ziren. Horrela, ezinbestekoa zen *Führerprinzip*, *Volksgemeinschaft* eta *Blund und Boden* printzipioak pantaila handian agertzea, zuzentasun bakarra izango balira bezala. Horien bitartekari perfektuak izan ziren lan honetan aztertu diren *Triumph des Willens*, *Jud Suss* eta zinema antikomunistaren eboluzioa; balio nazien isla garbia dira, eta film bakoitzak propaganda-eredu bat du: *Triumph des Willensek*, goraipamena eta handitasuna; *Jud Sussek*, antisemitismoa; eta zinema antikomunistak, izenak dioen bezala, komunisten kontrako propaganda.

Hala ere, zinemaren bilakaera eta biztanleriarengan eragiteko funtzio eta helburua ez ziren lehen saiakeran gauzatu. Izan ere, aurretik izandako porrotek eta emaitzek bideratu zuten, hein handi batean, filmen bilakaera oinarri nazionalsozialisten barruan. Horrela, pantailak, bertako eszena, musika, irudi, elkarrizketekin eta abarrekin, hau da, era desberdin eta entretenigarrian, etsai komun bat sortzearen ideia adierazten zuten, *Führeraren* behararen justifikazioa, eta beste hainbat ideia.

Propaganda oso arma baliagarria izan daiteke masengan eragina izateko, eta, hala, erregimen naziak modu eraginkorrean kudeatu zuen hori, aurretik izandako ereduetan oinarrituta. Alemania nazian, zinema ideologiaren eraginaren eta pelikulen balio politiko handiaren adibide argia da. Gaur egun ere, zinemagileak ideologiak bultzatzen ditu: ezkertiarra bada, iraultza baten arrazoiak azalduko dira pelikulan; eskuindarra bada, berriz, horren ondorio latzak.

Ondorioz, erregimen naziko filmek gaur egun aplikagarriak izan daitezkeen gauza ugari islatzen dute, hala nola propagandaren balioa, ideologiaren eragina eta zinemaren garrantzia.